



Eman hegoak euskarari



Deabruak

Dostoievskiren eleberrigintzak erdigunerik badu, horixe Jainkoa da

ARITZ GORROTXATEGI

1871n hasi zen argitaratzen 'Deabruak' Mezulari Errusiarra aldizkarian, emanaldika, garai hartan ohikoa zen bezala. Bi urte geroago, 1873an, liburu formatuan kaleratu zen. Duela 150 urte, beraz. Dostoievskik atal bat gehiago erantsi nahi izan zuen bigarren zatiaren zortzigarren kapituluaren ondoren. Atal horretan, Stavrogin pertsonaia bere krimenak aitortzen dizkio Tihon gotzainari, tartean neskatxa bati egindako sexu-abusuak. Katkov editoreak, ordea, baztertu egin zuen atal hori arrazoi moralengatik. Dostoievskik bere hurrengo liburuetan erabili zuen atal horretako edukia, birmoldatua baina, eta atal zokoratua galduta geratu zen, harik eta 1921ean idazlea-

ren alargun Anna Grigorievnaren paperen artean aurkitu zuten arte. Geroztik, zenbait ediziotan, eranskin gisa gehitu izan dute.

Errusian bizi zuten giro gatazkatsuen aurrean, Dostoievskik erradikalen aurkako eleberrri-panfleto bat idaztea erabaki zuen. Ezaguna da, gaztetan, Petrasevskiren lagunarte liberalaren partaide izateagatik atxilotu eta Siberiara bidali zutela zigortuta. Handik aldatuta itzuli zen Dostoievski, Jainko zalegoa eta kontserbadoreagoa, eta, handik gutxira, baita zorrez josiagoa ere. Esan bezala, orduko giro politikoa oso nahasia zen. 1861ean Alexander II.a Errusiakoa tsarrak joputza indargabetu zuen inperio osoan. Bost urte geroago, hura hiltzen saiatu ziren atentatu ba-

tean. Atentatu bat baino gehiago jasan zuen aurrerantzean, eta, azkenean, Rysakov iraultzaileak tsarraren gurdi azpira botatako bonba baten ondorioz hil zen 1881ean (1905ean, antzeko 'modus operandi'a erabiliz, Alexander II.aren semea, Romanov kondea, erail zuten beste atentatu batean, eta Camus hilketa horretan oinarritu zen 'Zintzoak' antzezlan idazteko). Nihilismoa eta joera erradikalak indarra hartzen ari ziren. Dimitri Pisarevek esaldi baten bidez laburbildu zuen erradikalitasun horren muina: «Herriko gizonarentzat mila aldiz gehiago balio du bota pare batek Shakespeareren edo Pushkinen lanek baino». Ivan Turgenev idazleak 'Aita-semeak' eleberria (Jose Morales Beldak

euskaratua) eskaini zion gaiari 1862an, eta eztabaida biziak sortu ziren Bazarov pertsonaia nihilistaren inguruan. Bazarovek denari uko egin behar zitzaiola esaten zuen. «Denari?», galdetzen dio solaskide batek, «Denari», erantzuten dio Bazarovek baretasunez. Baita Jainkoari ere, noski.

Eta Dostoievskiren eleberrigintzak erdigunerik badu, horixe Jainkoa da. Jainkoarekiko maitasuna, erredentzioa, ontasunaren bidea, errukia... 'Deabruak' en amaieran ikus daiteke hori garbiago, Stepan Trofimovix eta Sofia Matveyevna biblia-saltzailearen arteko harremanean. Eleberrriaren abiapuntua benetako gertaera bat da. 1869ko azaroaren 21ean, elkarte sekretu bateko kideek elkarte horretako kide bat, Ivanov izenekoa, erail zuten. Netxaiev zen elkarteko liderra. Eleberrian, Xatov pertsonaia gorputzen du Ivanov. Dostoievskik berak aitortu zuen: «Netxaiev bat izan nintekeen ni». Baina ez zen izan. Justu kontrakoa. Are gehiago, literaturzaleok eskertu egin behar diogu hasierako asmo bikoitz horretan (ele-

berri-panfletoa) literaturaren alde egin zuelako gehiago, eta koska eta kontraesanez betetako pertsonaia hezurramitzen jakin izan zuelako. Egile errusiarren eleberririk, gainera, eszenikoki eraikiak daude, eta krisi batetik bestera mugitzen da haieten, nola mugitu zen bere bizitzan. Bide batez, esan dezagun Turgenev beraren parodia bat egiten duela Karmazinov pertsonaia baliatuta. Eleberrian Netxaiev ordezkatzeko duen Piotr Stepanovix Verjovenskiaren zelulako kideek ezin dute egindako hilketa gaintu, lur jota geratzen dira gehienak. Dostoievskik fanatismoaren aurkako ohartarazpen bat jaurti zuen, sinetsita baitzegoen garai bateko utopia komunitaristaren mutazio kaltegarri bat zabaltzen ari zela, espiritu gaizto bat, belaunaldi gaztearen gogoak engainatzen ari zena.

J.M. Coetzee 'Deabruak' i eta nobelaren testuinguruari buruzko fikziozko hurbilketa eder bat idatzi zuen 'Petersburgoko maisua' eleberrian. Dostoievskik eta Netxaiev jartzen ditu aurrez aurre.

Fantasia eta mitologia

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Urtzi Leonet Santa Cruzek 'Itzalen Dama eta Patxi Bakallu. Herri margotua' eleberraren proiektuarekin irabazi zuen, 2019an, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailak antolatu eta gazteei zuzendutako euskarazko literatura testuak sortzeko beka. Leonet haur eta gazte literaturaren munduan estreinatu da Elkar argitaletxearen eskutik eta Iñaki G. Holgado komikilariren zuri-beltzeko marrazkiak lagun harturik; izan ere, nobela fantastiko hau da kaleratu duen aurrenekoa. Fantasia, zentzu hertsian, ez da oso genero landua izan euskal gazte literaturan, eta, beraz, aipagarria da mitologiako elementu fantastikoak abenturarekin biltzen dituzten eleberririk argitara ematea, kasu honetan bezala. Egia da Leonetek ez digula guztiz berria den mundu bat aurkezten, baina fantasiak betetako balizko garai ba-

tera garamatza. Garai hartan ez dago elektrizitate, marinelak zazpi itsasoak belaontzietan zeharkatzen dituzte eta izaki mitologikoak ez dira elezaharretako pertsonaia bakarrik; jentilak, mamarroak eta ireluak bezalako izakiak basoan, oihanean edota itsasoan topa daitezke.

Itzalen Dama eta Patxi Bakallu kapitaina dira protagonistak, eta eleberr honetan -sagaren lehen liburukia- Kamaika eta herri margotuari laguntzeko asmoz heldu dira Portutxora. Haien itxaropena 'haka' dantzen aipatzen duten gizon iletsua aurkitzea da, zeinak, Tahirimatea jainkoari aurre egiten lagun diezaioketen Laino Zuri Handiaren Lurraldean eguzkiak berriro distira egin dezan. Bidaian, Basajaun, Mari, Sugaar, Tartalo eta Traganarru bezalako pertsonaiekin egingo dute topo.



ITZALEN DAMA ETA PATXI BAKALLU
U. SANTA CRUZ/
I.G. HOGADO
Elkar. 188 or.
16 euro

Horrela, Leonetek abentura eta fantasia bateratzeaz gain, euskal eta maorien mitologiako elementuak hurbiltzen dizkio egungo irakurleari. Nobela hau genero fantastikorako ate erakargarria izan daiteke haur eta gazte literaturaren arteko erdibidean dauden irakurleentzat.

Osasungintza arazo

ARANTXA URRETABIZKAIA



A dinkide artean biltzen zarenean, familiakoekin, lanekoekin nahiz aspaldiko adiskideekin, adinaren arabera aldatu egiten dira elkarrizketak, gai desberdinek hartzen dute gaina. Seme-alaben inguruko elkarrizketa luzeak, guraso zaharren zaintzak edo, adin nagusikoen artean, osasun kontuak.

Badira urte batzuk aspaldiko adiskide batzuk arratsalde batez bildu ginela, dozena erdi emakume adindu. Bertako batek esan zuen anai-arrebekin biltzen zirenean bakoitzak bost minutu zituela gaixotasunak edo adinaren ajeak aipatzeko eta handik aurrera debekatua zegoela gaia. Egiaztatu omen zuten arau hori gabe osasunaren inguruan joaten zela egonaldi osoa.

Bada, azken boladan, gai berri bat gaintu zaie betiko gaiei, lehen, nire in-

guruan behintzat, gutxitan agertzen zena. Osasunarekin du zerikusia edo, zehazkiago, osasun faltarekin. Arratsalde osoa joan daiteke bildutako bakoitzak Osakidetzaren inguruan dituen esperientziak aipatzen, ambulatoriokoa, espezialistena edo ospitalekoa.

Ez da aspaldiko kontua, baina gutako edonork egiazta dezake gaiak edozein bileratan duen lehentasuna. Nire esperientziaren arabera, lehen eta bigarren mailak dira kezka gehien sortzen dutenak, lehen arreta eta espezialistena. Ospitaleak oraindik salbatzen dira.

Egiazta esan, batzuetan iruditzen zait gure osasun sistemak aje hori duela, 'ospitalitis' izenda daitekeen gaixotasuna. Eta hor ere, batez ere Gipuzkoan eta aspaldian Donostiako Ospitalearen inguruko tira-birek eragina izan dute. Ez da ausardia handia behar esateko osasungintza kezka zabaldua dela azken boladan gure artean.

Uste genuen munduko osasun sistemarik hoberena genuela, eta orain, pandemia eta gero, ez gaude hain ziur. Agian ez zaigu guri zuzenean ospe hori ahuldu duen ezer gertatu, baina guztiok entzun dugu beste norbaiten arazoa.

Kezkatuta gaude, dudarik gabe.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Bihurguneko nasa

Uxue Apaolaza. Susa

EZ FIKZIOA

1 Gaueko eztabidak

Agustin Arrieta. Erein

2 Begiak zabalduko zaizkizue

Irati Jimenez. Elkar

3 Nire uztapide

Pako Aresti. Erein

4 Berpiztu

Kepa Junkera. Infernukoa auspoa